

## “Rock taldeetan emakumeok abeslari edo teklista gara nagusiki”

Blanca Izkue | Diskeroa

Balerdi Balerdi taldean teklatuak jotzen zituen ilehori xarmagarria, egun musika negozioa (?) suspertzen dabil Gor zigiluaren zein Euskal Herriko Diskoetxeen Elkartearen bitartez.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazia: Josu Santesteban

### Egun inork ez du diskorik erosten. Zertaz bizi zarete diskoetxeetako profesionalak?

Karitateaz eta gure senideen soldataz, krisialdi puta honek ito gaitu eta babak beste nonbait bilatzera behartu gaitu. Txantxak alboratuz, disko-gintzaren inguruan dauden bestelako aferetan sartu behar izan dugu: kontzertuen antolakuntza –joan den Sanferminetako euskal musika programatu genuen–, bestelako zigiluen diskoak edo auto-ekoizpenak merkaturatu, kantuen edizioa, taldeen *management*...

### Diskoetxe bakoitzak bere taldeen kontzertuak kontrolatzen ditu orain eta managerrei lana kentzen.

Guk taldea plazaren atariraino ekartzen genuen eta managerrak taldea eskutik hartu eta plazaren erdira eramaten zuen. Orain gu gara taldearen ibilbide osoan gabiltzanok, diskoaren grabaziotik zuzenekoetara. Ez da intrusismoa. Taldeak eza-gutzera eraman ditugunok zilegitasun osoz hasi gara orain haien zuzenekoetan parte hartzen.

### Balerdi Balerdi, gutxien ezagutu izan den Euskal Herriko talderik onena.

Orain gutxi Pettik halaxe esan zidan. Kultoko taldea omen ginen, beste batzuentzat talde “madarikatua”... Guk, berriz, asmo handirik ez genuen: musika ona testu onek lagunduta maite genuen, gure abilezia mugatuekin ahalegintzen ginen. Eta duintasunez desagertu ginen eszenatik, zalapartarik gabe, dramarik gabe.

### Power-pop taldea zineten, baina power-popa ez da Herriaren estiloa.

Aritu ginen urteetan –1992tik 2002ra, gutxi gora-behera– gure estiloa, ezohikoa izateaz gain, oso “biguna” zen. Artean, heavya eta punkia ziren nagusi. Pentsa ezazu zer sentitzen den La Polla edo MCDren aurretik jotzen, publikoak nahi duen gauza bakarra zuk behingoz bukatzea denean.

### Horregatik Gor diskoetxean heavy eta punka izan dira nagusi, bestela jai...

Gor-en maite dugun musika grabatzen dugu, baina ez gara kamikazeak, profesionalak baizik. Euskal Herrian jendea oso fidela da punkari eta heavyari. Beraz musika horretan berezitu gara, nahiz oso bestelako estiloak ere hedatu ditugun. Gogoratu bestela Hemendik At! (dance), Numidia (folk) edo Nafarroako Bertsozaleen Elkartearekin egindako lana, eredutik salbu dauden adibide batzuk aipatze aldera. Esan beharra dago gu ere punki samarrak garela, eta makarrak ere bai.

### Blondie gertuen ikusi dudana eguna, zu zuzenean ikusi zintudaneko lehena.

Kontxo! Mia Farrow-rekin dudana antza maiz aipatu didate, baina Blondie-rekin lehena dut haur! Oso gustuko dudana musikaria da, bera eta berarekin aritzen den banda. Orokorki, emakume gutxi dago rock munduan, are gutxiago bere gailurrean. Ar estereotipoak dira nagusi eta sekulako sexismoa dago itxuretan. Rock taldeetan emakumeok abeslari edo teklista gara nagusiki. Disko-gintzaren barruan promozioan aritzen gara batik bat. Apika geu, emakumeok, “roll” horiekin konformatu gara. ■